

# Aratz Gallastegi

• GETXO ARTEAKO ERRUGBI JOKALARIA •

## «Euskal selekzioaren alde lan egiteko, uko egin diot Espainiakoari»

■ ■ ■ 23 urteko errugbi jokalaria, 15 bider Espainiarekin lehiatu ostean, selekzioa ez dela itzuliko jakinarazi du. ■ ■ ■ Kirolariek «euskal selekzioa eta euskal lizentziak» aldarrikatu behar dituztela dio, eta horren alde ekiteko utzi du Espainiako taldea. ■ ■ ■ Euskal kirol agintariek «beldurra» dutela uste du, eta Eusko Legebiltzarrean onartu zen Kirol Legea garatu eta praktikan jar dezaten eskatzen die.

EUROPAKO KOPA Espainiarekin jokatzeko deialdia iritsi zaion unean, Aratz Gallastegi jakinarazi du ez duela berriro jantziko Espainiako selekzioaren elastikoa.

■ **Uko egin diozu Espainiako selekzioarekin berriro jokatzeari. Zergatik hartu duzu erabakia?**

Beno, erabaki hori Errugbiko Mundu Kopa hasi baino lehen hartuta neukan. Arrazoia argi dago: Euskal Herriko selekzioaren alde lan egin nahi dudala. Ikusten hasi da jendeak euskal selekzio bat nahi duela, eta une ona da denok batera helburua lortzeko bidean abiatzeko.

■ **Kirolariei dagokizue ardura hori hartzea?**

Ez da kirolarion ardura soilik. Hau guztien lana da, eta gehienbat kirol agintariena ere bai. Euskal kirol agintariek ardura garrantzitsu bat dute. Hots, Eusko Legebiltzarrek onartutako Kirol Legea praktikan jartzea. Ez dugu bakarrik euskal selekzioa lortu behar, euskal lizentzia ere bai. Kirolariok nortasun agiri bat behar dugu, gu euskaldunak garela adierazteko. Helburua hori da, euskal selekzioaren eta euskal lizentziaren alde lan egitea.

■ **Nola ikusten duzu Espainiarekin batera lehiatzen diren euskaldunak?**

Esan behar dut ez diedala bizkarrara eman nahi Espainiako selekzioetan parte hartzen duten kirolariei. Afera ez da hori. Orain arte kirolari moduan aurrera egiteko aukera bakarria izan da: edo Espainiarekin joan, edo ezer ez. Guk eduki beharko genuke eskubidea Euskal Herriko



KOLDO ALDUNTZIN

selekzioan lehiatzeko, baina ez dugu.

■ **Zurea bezalako erabakiekin euskal selekzioak gertuago daude?**

*«Afera ez da ezetz esatea Espainiari. Ezin gara horretan gelditu. Nirea ez da azken pauso, hasierako pauso bat da. Nik erabaki hau hartzearen errua, maila handi batean, euskal kirol agintariena da, ez dutelako Kirol Legea behar bezala bideratzen.»*

■ **Euskal kirolarien artean gero eta gehiago dira erabaki hori hartzea pentsatzen dutenak. Zer esango zenieke?**

Nik ez dut lider izan gura. Bakoitzak hausnartu behar du zer nahi duen eta nola lortu nahi duen. Nik euskal lizentzia eta euskal selekzioa nahi ditut, eta horien alde lan egingo dut. Ezin naute hartu kirolari arrunt bat gisa, ez dudalako nire herriarekin batera lehiatzerik. Hori da nire gogoeta, baina bakoitzak bere erabakia hartu behar du. Hori bai, Espainiari uko egitea ez da helburua, pauso bat baizik.

■ **Zer esan zuen Espainiako hautatzaileak erabakia berri izan zuenean?** Hasiera batean, ez zuen

■ **Madril isilik, ESAITek «txalo»**

E. Esnaola / Donostia.- Espainiako Errugbi Federazioak atzo ez zuen oharririk atera Gallastegiren kasuari buruz, «jakin» bazekien arren jokalaria zer erabaki hartu duen. «Bali-teke bihar [gaur] zerbait esatea», esan zioten federazio kideek atzo EGUNKARIARI. Federazio bakoitzak bere araudia du, baina errugbian Espainiako Ohorezko Maila amateurra izanik, ikusi egin behar isunik ere jartzen dioten Gallastegiri.

Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldeak (ESAIT) «txalotu» egin du haren erabakia, «euskal selekzioaren aldeko kontzientzia suspertzeko oso urrats baliagarria izateaz gain, eredu ere izan daitekeelako» beste kirolari batzuentzat.

ulertzen, bere kontrako zozer zela uste zuen. Berak esan zidan hori politikarien kontua zela, horretarako

hauteskundeak zeudela... Proiekzio handiko kirolari batentzat erabaki gogorra zela adierazi zidan. Baina nik uste dut erabakia hartzeko unea egokia dela oihartzun handiagoa izango duelako, eta hori ere garrantzitsua da.

■ **Zein izan da zure erabakiak klubean izan duen harrera?**

Talde kideei asteburuan bertan jakinarazi nien, eta uste dut apur bat harriturik geratu zirela. Orain arte ez

didate ezer esan, eta klubak ere ez, orain jakingo zutelako berria. Baina uste dut nirekin bat egin eta lagunduko didatela, hasieratik bazekitelako zein zen neure jarraera.

■ **Kirolariei zein da dagokizuen lana euskal selekzioaren aldeko borrokan?**

Guk erabaki behar dugu Espainiako selekzioarekin joan nahi dugun ala Euskal Herrikoarekin joan nahi dugun. Kirolariok hori egin beharko genuke. Baina hau ez dagoenez normalizatua gure zereginak mundu guztiari gure nahia azaltzea izan behar du. Norberak bere kirolean euskal lizentzia eskatu, eta Euskal Herriko selekzioa joan nahi duela adierazi.

■ **Kirolarien aldetik badago halako kezka bat gaiarekiko. Baina ez al daude banatuegiak kirolariak eta agintariak?**

Ez dago loturarik kirolari eta agintarien artean. Agintarien aldetik beldurra sortzeko kultura hori badago. Kirolariok beldur hori gainetik kendu, eta argi eta garbi esan behar dugu ez dugula gure lizentzia Madrilerara eramatea nahi. Espero dut nire erabakia horretan laguntzea. Ez dut nahi olatu bat izatea, igaro eta gero ahaztu egingo dena.

■ **Ikusten duzu zure burua urte batzuk barru Errugbiko Munduko Kopan Euskal Herriko selekzioarekin?**

Gatza izango da. Baina itxaropena ez dugu galduko, galtzen baduzu ez duzulako inoiz ikusiko. Baina uste dut gutxienez kirol arlotik askatasun txiki hori lor dezakegula. Hala ere, etxean gauza asko ditugu atontzeko, eta kontu horri ez diogu garrantzi larregi eman behar oraindik. Behetik hasita gauzak ondo egin behar ditugu, eta hori euskal lizentzia eskatzea da, eta horrekin lehia-tzea hurrengo denboraldian.

Ivan Santamaria  
GASTEIZ